



AITA SANTUAREN MEZUA

Aita Santuaren mezua

**Migratzaile eta Errefuxiatuen 106. Mundu Jardunaldirako
2020ko irailaren 27a**

Jesu Kristo bezala, ihes egitera behartuak.

*Harrera ona egin, babesa eman, sustatu eta gizarteratu
barruko edo bertako lekutuei*

Urtearen hasieran, Vatikanon akreditaturik dauden Ordezkaritza Diplomatikoak nik egindako hitzaldian, gaur egungo munduak dituen erronken artean, barruko edo bertako lekutuen drama aipatu nuen: «Gizarteko tirabira eta larrialdiez gainera klima gogorraren ondorioak direla eta, gero eta gehiago dira lekutuak, eta lehendik ere pobrezi egoera izugarrian bizi diren pertsonen eragiten die. Horrelako egoerak zigortu izan duen herrialde askok ez du egitura egokirik, lekutuen beharrei aurre egin ahal izateko» (2020ko urtarrilak 9).

Giza Garapen Integraleko Arloko Vatikanoko Erakundeak duen Migratzaile eta Errefuxiatuen Sailak argitaratu du «Argibide Pastoralak Barruko Lekutuei buruz» (Vatikanoko Hiria, 2020ko maiatazaren 5a); dokumentu honen asmoa Elizak zehazki arlo honetan esku artean dituen ekintza pastoralak argitu eta animatzea da.

Horregatik, Mezu honen gaitzat barruko edo bertako lekutuen drama hartzea erabaki nuen, askotan ikusezina baita, eta COVID-19 pandemiak ekarritako mundu osoko krisiak oraindik gehiago gogortu duena. Hain zuzen, krisi honek, beraren gogortasun, larritasun eta zabaltze geografiko handia dela eta, lausotu egin ditu milioika pertsona atsekabetzen duten beste emergentzia asko; bigarren mailan utziak gelditu dira ekintza politiko nazionaleko egunerokoa, bizia salbatzeko funtsezko eta premiazkoak diren nazioarteko hainbat ekimen eta laguntza. Baina «hau ez da gauzak ahazturik uzteko garaia. Orain jasaten ari garen krisi honek ez gaitzala eraman pertsona askori sufrimendua dakarkion hainbat larrialdi-egoera alde batera uztera» (*Urbi et Orbi Mezua*, 2020ko apirilaren 12a).

2020ko urte honetan izan ditugun zoritxarreko gertaerak direla eta, COVID-19aren ondorioz, eskasian, abandonaturik, baztertuak eta arbuatuak izatearen esperientzia bizi izan dutenei eta oraindik ere egoera horretan aurkitzen direnei luzatzen diet, barruko lekutuei eskainitako Mezu hau.

Exsul Familia (1952ko abuztuaren 1a) Konstituzio Apostolikoa idazteko Pio XII.a aita santuari argibidea eman zion irudiarekin hasi nahi dut. Jesus haurrak, bere gurasoekin batean, Egiptora ihes egitekoan, lekutuaren eta errefuxiatuaren zoritxarreko izaera nabaritu zuen,

«beldurrak, zalantzak eta deserosotasunak zauriturik (ik. *Mt* 2, 13-15. 19-23). Tamalez, gaur egun ere, milioika familia senti daiteke egoera triste horretan. Telebistan eta egunkarrietan ia egunero aurkitzen ditugu gose, gerra nahiz beste arrisku larritik iheska, berentzat eta beren familientzat segurtasun eta biziera duin baten bila, doazen errefuxiatuen albisteak» (*Angelusa*, 2013ko abenduaren 29a). Pertsona eta familia horietako bakoitzean presente dago Jesus, bizia salbatzeko –Herodesen garaietan bezala– ihes egitera behartua. Horrelakoen aurpegian Kristoren aurpegia antzematen jakin behar dugu, gose, egarri, biluzik, gaixo, kanpotar dena edota kartzelan dagoena eta deika ari zaiguna (ik. *Mt* 25, 31-46). Ezagutzen badugu, guk emango dizkiogu berari eskerrak bera ezagutu, maitatu eta zerbitzatu izanagatik.

Barruko edo bertako lekutu hauek Jaunarekin topo egiteko egokiera ematen digute, «baita gure begientzat zaila bada ere antzematea: arropa puskatua daukatelako, hankak zikinak, aurpegia desitxuratua, gorputza zauritua, gure hizkuntzan hitz egiten ez dakitelako» (*Homilia*, 2019ko otsailaren 15a). Erronka pastorala da aurrean daukaguna, eta 2018ko Jardunaldirako Mezuan aipatu nituen lau aditzekin erantzun behar diogu: harrera ona egin, babesa eman, sustatu eta gizarteratu. Lau hauei beste sei aditz bikote erantsi nahi dizkiet, ekintza oso zehatzekin lotuak eta elkarrekin kausa-ondorio gisa erlazionatuak daudenak.

Ulertu ahal izateko *ezagutu* egin behar da. Ezagutzea beharrezko urratsa da besteari ulertzeko. Jesusek berak Emausko ikasleen pasartean irakasten digu hori: «Hizketan eta eztabaidan ari zirela, Jesus berbera hurbildu zitzairen eta haiekin zihoan; haien begiak, ordea, itsu zeuden eta ez zuten ezagutu» (*Lk* 24, 15-16). Migratzaile eta lekutuak aipatzean, zenbakietara mugatzen gara gehienetan. Ez dira, ordea, zenbakiak, pertsonak dira! Horiekin topo egiten badugu, ezagutu ahal izango ditugu. Eta horien historia jakiten badugu, horiei ulertzea lortuko dugu. Ulertu ahal izango dugu, esate baterako, guk pandemiaren ondorioz nabaritu dugun eskasia eta sufrimendua, lekutuen bizitzan etengabeko kontua dela.

Norbaiti *zerbitzu egin* ahal izateko *hurbileko lagun egin* behar da. Gauza jakina dirudi, baina askotan ez da hala izaten. «Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olio eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen» (*Lk* 10, 33-34). Gure beldur eta aurreiritziek –hainbat aurreiritzik– pertsonengandik aparte egotera eragiten digute eta askotan eragotzi egiten digute «lagun-hurko bezala hurbiltzea» eta maitekiro besteari zerbitzu egitea. Lagun-hurkoarengana hurbiltzeak, askotan, geure gain arriskuak hartzea esan nahi du, azken hilabete hauetan mediku eta osasun-langile askok irakatsi digun bezala. Zerbitzu egiteko hurbil egote hau agindutakoa betetze hutsa baino gehiago da. Honen adibiderik garbiena Jesusek berak eman zigun, ikasleei oinak garbitu zizkienean: soingainekoa erantzi, belaunikatu eta bere eskuak zikindu zituen (ik. *Jn* 13, 1-15).

Adiskidetzeko entzun egin behar da. Jainkoak berak irakasten digu hori, gizadiaren negar-oihua giza entzumenez entzun nahi izan baitzuen, eta bere Semea bidali zuen mundura: «Izan ere, hain maite izan zuen Jainkoak mundua, bere Seme bakarra eman baitzion, harengan sinesten duenak [...] betiko bizia izan dezan» (*Jn* 3, 16-17). Adiskidetzen eta salbatzen duen maitasuna aktiboki entzutetik hasten da. Gaurko munduan ugariak dira mezuak, baina entzuteko gaitasuna galtzen ari gara. Apalki eta arretaz entzunez bakarrik lortuko dugu egiaz adiskidetzeta. 2020ko urte honetan isiltasuna nagusitu da gure kaleetan hainbat astetan. Isiltasun izugarria eta kezagarria izan da, baina kaltetuenen, lekutuen eta gaixotua dagoen gure planeta honen oihoa entzuteko egokiera eman digu. Eta oihu hori entzun izanari esker, lagun-hurkoarekin, hainbat bazterturekin, geure buruarekin eta Jainkoarekin adiskidetzeko egokiera izan dugu, aspertu gabe eskaintzen baitigu Jainkoak bere errukia.

Hazi nahi bada, *partekatu* egin behar da. Lehenengo kristau-elkartearantz funtsezko pilareetako bat zen partekatzea: «Sinestedun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ere ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta guztia guztiena zuten» (*Eg* 4, 32). Ez zen Jainkoaren nahia gure planetako ondasunak gutxi batzuen probetxurako izatea. Ez, Jaunak ez zuen hori nahi izan! Partekatzen ikasi behar dugu elkarrekin hazi ahal izateko, inor kanpoan utzi gabe. Denok itsasontzi berean gaudela irakatsi digu Pandemiak. Denok kezka eta beldur berdinak ditugula konturatzeak erakutsi digu, behin berriro, ez dela inor bakarka salbatzen. Egiaz hazi nahi bada, elkarrekin hazi behar dugu, Jesusi bost garagar-ogi eta bi arrain eskaini zizkion mutiko hark bezala daukaguna partekatuz... Eta aski izan ziren bost mila pertsonarentzat! (ik. *Jn* 6, 1-15).

Zerbait *sustatu* nahi bada, beharrezko da norbera horretan *sarturik egotea*. Hori egin zuen Jesusek samariar emakumearekin (ik. *Jn* 4, 1-30). Hurbildu zitzaion Jauna, entzun zion eta bihotzera hitz egin zion, gero emakume hura egiara eramanez eta berri onaren iragarle egiteko: «Zatozte egin dudana guztia esan didan gizona ikustera. Ez ote da bera Mesias?» (29. tx.). Inoiz, besteei zerbitzu egiteko bihozkadak ez digu uzten haien alderdi onak ikusten. Benetan laguntza eskaintzen diegun pertsonak sustatu nahi baditugu, beharrezko da pertsona horien erreskatatze-ekintza horretan beroiek sartu eta protagonista eginaraztea. Pandemiak erakutsi digu, zenbateraino den funtsezkoa erantzunkidetasuna eta denen –askotan gutxietsiak direnak ere barne– elkarlanarekin bakarrik dela posible krisiari aurpegi ematea. Hau da gure eginkizuna: «denak deituak direla senti dezaten ahalegintzea, eta harrera oneko, senidetasun-eta solidaritate-era berriak sustatzea» (*San Pedro Plazan egindako Gogoeta*, 2020ko martxoaren 27a).

Zerbait *eraiki* nahi bada beharrezko da *elkarlana*. Hori da San Paulo apostoluak Korintoko kristau-elkarteari gomendatzen diona: «Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean arren eskatzen dizuet: etor zaitezte bat guztiok eta ez bedi izan zatiketarik zuen artean; bizi elkar ondo harturik, ikuspegi eta iritzi bat bera duzuela» (*I Ko* 1, 10). Jainkoaren Erreinua eraikitzea kristau guztioi dagokigun eginkizuna da; horregatik, elkarrekin lanean aritzen ikasi behar dugu, jeloskor izan gabe eta haserreak eta zatiketak baztertuz. Eta oraingo egoera hau «Ez da berekoikeria-garaia, aurrean daukagun erronkak bat egiten gaituelako, pertsonen arteko bereizkeriak utzita» (*Urbi et Orbi Mezua*, 2020ko apirilaren 12a). Denona den etxea zaintzeko eta Jainkoaren hasierako asmoaren antza gero eta gehiago izan dezan ahaleginak egiteko, nazioarteko lankidetzak, solidaritate orokorra eta lekuko partaidetza bermatzen saiatu behar dugu, inor kanpoan utzi gabe.

Bukatzeko, San Joseren etsenpluan, bereziki Haurra salbatzeko Egiptora ihes egitera beharturik aurkitu zenekoan, oinarriturik, otoitz bat egingo dut:

Aita, Zuk zeneukan gauzarik baliotsuena San Joseren ardurapean jarri zenuen, Jesus Haurra eta haren ama, arriskuetatik eta jende gaiztoaren mehatxuetatik zaintzeko.

Egizu, guk ere nabari dezagula haren babesa eta laguntza. Berak ihes egitearen sufrimendua jasan behar izan zuen boteretsuen gorrotoetatik; egizu, kontsola ditzala eta zaindu, gerra, pobrezia eta behar-egoeretatik, beren etxea eta lurraldea utzi eta, leku seguruagoetara joateko, errefuxiatuen bidea hartu beharrean diren senideak.

Lagun iezaiezu senide horiei, San Joseren otoitzari esker, adorea izan dezaten aurrera egiteko; emaezu tristuraldian kontsolamendua eta zailtasunean ausardia.

Emaiezu, harrera ona egiten dietenei, aita zuzen eta zuhur honen samurtasun pixka bat, egiazko bere semetzat hartu baitzuen Jesus eta laguntza eman baitzion Mariari bidaian zehar.

Bere eskuen lanarekin ogia irabazten zuen Jose santuak eman diezaiela, bizitzak guztia kendu dietenei, beharrezko dutena; baita lanbide duina ere eta etxe baten segurantzia.

Hori eskatzen dizugu, Egiptorako ihesaldian San Josek salbatu zuen Jesu Kristo zure Semearen bitartez, eta zure borondatearen arabera senar leial bezala maite izan zuen Maria Birjinaren otoitzari esker. Amen.

Erroma, Letrango San Joan, 2020ko maiatzaren 13a,
Fatimako Maria Birjina Dohatsuaren Oroipena.